

**ONARPEN IRIZPIDEAK: NAUTIKA ETA ITSAS GARRAIOKO UNIBERTSITATE
MASTERRA
(BILBOKO INGENIERITZA ESKOLA)**

Hauek izango dira **ikasleak hautatzeko irizpideak** masterrean izena ematen dutenen artetik: batetik, beren graduaren egokitasuna eta, bestetik, espediente akademikoa.

Irizpide hauek aplikatzeko honako koefiziente hauek erabiliko dira:

- Nautika eta Itsas Garraioko Gradua (%100)
- Ingeniaritza Nautikoko eta Itsas Garraioko Lizentziatura (%90)
- Batzordearen uztez aurrekoen parekoak diren titulazioak (%80)

Onartuen zerrenda sarrera notaren arabera egingo da. Onartuko dira sarrera notarik onena daukaten ikasleak, harik eta eskainitako plaza guztiak bete arte. Gainerakoak, sarrera notaren arabera sailkaturik, "itxaron zerrendara" pasatuko dira. Onartutako norbaitek ez badu masterra egiteko eskaria berresten, "itxaron zerrendako" hurrengoa onartuko da, betiere ezarritako hurrenkeraren arabera.

Honela kalkulatu da **sarrera nota**:

- Nautika eta Itsas Garraioko Gradua duten Ikasleentzat:
 - Sarrera Nota = Esp.Nota
- Ingeniaritza Nautikoko eta Itsas Garraioko Lizentziatura duten ikasleentzat:
 - Sarrera Nota = 0,9 x (Esp.Nota)
- Masterreko Batzorde Akademikoak aurrekoen parekotzat jotzen dituen titulazioetako bat duten ikasleak ikasleentzat:
 - Sarrera Nota = 0,8 x (Esp.Nota)

Esp.Nota = Espedienteko batez besteko nota

UPV/EHUko ikasleentzat: espedienteko batez besteko nota izena emateko epea amaitzen den egunean.

UPV/EHUkoak ez diren ikasleentzat: izena ematean aurkeztutako espedienteko batez besteko nota.